



Blackbird (Erabakia) • AEB

Roger Michell (zuzendaria)
Sam Neill (aktorea)
David Bernardi (ekoizlea)

Michell: “Errazagoa da tragedia bat filmatzea komedia bat baino”

SERGIO BASURKO

Blackbird-en emanaldiarekin hasi da Urrezko Maskorra lortzeko lehia eta estreinako negar malkoak sorrara-zititu bere sufrimendua amaiera jarri nahi dion gaixo terminal baten azken asteburua kontatzen duen filmak. Susan Sarandonek bikain he-zurmamitzen duen pertsonaiak familia osoa bilduko du, bizirik jarraitu nahi ez duela jakinarazteko. Horrek agerira ekarrisko ditu familiako liskar ezkutuak, baita bi alabek amari dio-ten maitasuna ere.

90eko hamarkadaren amaieran Notting Hill komedia erromantikoaren txarteldegiak leherrarazi zituen Roger Michellek Silent Heart (2014) dramaren remakea zuzendu du. “Egia esateko, errazagoa da tragedia bat filmatzea komedia bat baino. Hala ere, leuntasun handiz tratatu beharreko gaia zen eutanasiarena. Oraindik ora-in eutanasia eta suizidioaren arteko mugak, legeari buruz ari bagara be-



Sam Neill eta Roger Michell.

GARI GARIALDE

hintzat, lauso batean baitaude munduko herrialde gehienetan”, azaldu du zuzendariak.

“Alabaina –hariari heldu dio Sam Neill aktoreak–, gaur egun jendea oro har denboragehiago bizi da, eta euren patua kontrolatu nahi dute, ez dituz-

te gauzak halabeharraren eskuetan utzi nahi, bai bizirik daudenean baita heriotzari aurre egin behar diotenean ere”.

Filma asteburu huts batean da go kontatua, zeinean Lily (Sarandon) gaixo terminala bere sufrimendua

amaiera ematea erabakita dagoen. Bi egun horietan ahaideek berriro elkar ezagutzeko, iraganeko zamak aire-ratzeko eta barre nahiz negar egiteko aukera izango dute.

Neilen arabera, “Susan eta ni ez dugu gehiegiz hitz egin behar lan egiteko orduan, begirada hutsez ulertzen dugu elkar”. Aktoreak adierazi due-nez, “oso harreman estua sortu du-gu. Konfiantza asko hartu dugu guztiak oso film korala delako eta eszena gehienetan guztiak irtenen garelako. Zortzi laguneko aktore multzoa gi-nen eta han geunden denbora guztiak elkarrekin”.

Connecticuteko kostaldea irudi-katzen duen Chichester (Ingalaterra) inguruan bost aste eskasetan gauzatu zen filmaketa, dekoratu bakar batean eta kronologikoki gainera. “Beti toki berean eta kronologikoki filmatzea, aktoreek pertsonaia biribilak sor ditzaten... Zer gehiago eska daiteke?”, pozik esandu zuzendariak bere hitzaldiari amaiera emateko.

More about life than death

Roger Michell, the director of Blackbird, flanked by producer David Bernardi and actor Sam Neill gave a press conference after the screening of their film, which opened the Official Selection yesterday. Michell said that although it dealt with euthanasia, it wasn't a film that demanded its legalization, and Sam Neill also agreed that it didn't take sides. “It was far more about life and living.” Blackbird is a remake of the Danish film Silent Heart, and the director claimed he hadn't yet seen Billie August's film as he hadn't wanted to be overwhelmed by it. Sam Neill also revealed that none of the cast had seen the original version, not out of any lack of respect, but simply because they hadn't wanted to be influenced by it. He joked that he hadn't wanted to see another actor playing his role in case he was better than him.

: Zinemaldiko informazio guztia
www.naiz.eus

naiz:

[Facebook](#) [Twitter](#)